



**Arartekoaren 2013ko abenduaren 10eko ebazpena. Horren bitartez, espedientea diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu zen unera atzera eramateko eskatu zaio Lanbideri.**

### Aurrekariak

Interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen ditu eta adierazi du 2013ko apirilaren 2an logela bat alokatzeko kontratu berria aurkeztu zuela bizilekuarengatik zegokion Lanbideko bulegoan.

Apirilaren 23an diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria berritzeko dokumentazioa aurkeztu zuen, eta ekainean Lanbidek ez berritzeko proposamena jakinarazi zion, aurkeztutako kontratua "legearekin bat ez etortzeagatik".

Azkenik, uztailaren hasieran, bi eskubideen iraungitzea burutu zen.

Ikus daitekeenez, ebazpenean jasotako motibazioa hain laburra eta orokorra zen, ezen ez baitzuen erabaki horren arrazoi zehatzak jakitea ahalbidetzen. Horren ondorioz, gaiari buruzko informazioa eskatu genion Lanbideri, eta horrek, zuzendari nagusiaren idazkiaren bidez, hauxe adierazi zuen:

*"Berritzeko espedientea aztertu ondoren eta bertan dauden agiriak aztertuta, ikusi da erroldatze-agirian adierazitako gaur egungo bizilekua eta ostatu- edo apopilotza-kontratuan agertzen dena ez datozela bat.*

*Horrenbestez, helbide aldaketa bat izan da Lanbideri jakinarazi gabe, eta jakinarazi egin behar dela ezartzen du abenduaren 23ko 1812008 Legeak, Gizarteratzeari eta Diru Sarrerak Bermatzeari buruzkoak, 19.1 g) artikuluan (Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoak, 12. artikuluan garatzen du).*

*Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak prestazioa ez berritzea erabaki zuen, 2013ko maiatzaren 9ko ebazpenaren bidez. Ebazpena 2013ko maiatzaren 15ean jakinarazi zitzaion interesdunari.*

*2013ko uztailaren 18an, interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errenta berriz eskatu zuen, eta hura aitortzeko prozedura abian jarri zen. Prozedura izapidetu ondoren, 2013ko irailaren 23an egin zen prestazioa emateko ebazpen proposamena, eta atzerapenak ordaintzea ezartzen zuen: batetik, 1.499,25 €, diru-sarrerak bermatzeko errentaren ordainetan eta, bestetik, 608,33 € etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren ordainetan.*

*Horrez gainera, hilean 616,13 €-ko zenbatekoa aitortzen zion ebazpen-proposamenak interesdunari, diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa, eta hilean 250,00 € etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarri gisa. Kopuru horiek,*



*atzerapenak barne, urriko nominarekin batera hasiko zaizkio ordaintzen interesdunari."*

### Gogoetak

Horren inguruan azaldu behar da Lanbidek kontzeptu-akats bat egin duela kexagilearen titulartasunekoa zen eskubidea betebehar bat ez betetzeagatik (kasu honetan "bizileku aldaketa bat ez jakinarazteagatik") ez berriztatzean. Izan ere, hori eskubideak eteteko kausa gisa jasota dago aplikatu beharreko araudian, eta ez iraungitzeko kausa gisa. (18/2008 Legearen 19. artikulua eta 147/2010 Dekretuaren 12.1g) artikulua).

Ez da ahaztu behar iraungitzea gertatzeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiak "betekizunak" ez betetzea eskatzen duela, ez "betebeharrak" kasu honetan bezala. (Bi urtetan bi etete gertatu badira izan ezik, 18/2008 Legearen 28. artikulua).

Zentzu horretan, ikuspuntu juridikotik egokiena prestazioa berritzea izango zatekeen, hori eskuratzeko betekizunak betetzen baziren, eta alde batera utzirik aldi berean eskubideak etenda jarraitzea eteteko arrazoiek iraun zuten denboran.

Horrela, nahiz eta eskubide berri bat aitortu den eta kexagilea prestazioa jasotzen ari den, erakunde honek uste du eskubidea ez berritzeak arauan aurreikusitako kasuak baino ezin zituela oinarri hartu, alegia betekizunak ez betetzea eta ez betebeharrak ez betetzea.

Horregatik guztiagatik honako gomendioa egin da:

### Gomendioa

Espedientea Lanbidek eskubidea berritzea ukatu zuen unera atzera eramatea eta berritzearen aldeko ebazpena egitea, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko betekizunak betetzen badira, eta alde batera utzirik aldi berean eskubideak etenda jarraitzea eteteko arrazoiek iraun zuten denboran.